

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

667

EBAZPENA, 2026ko otsailaren 3koa, Justiziako zuzendariarena, espetxe-arloko lan eta ikerketarako «Francisco Javier Gómez Elosegui» saria arautzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzen duena.

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak espetheen arloko lan eta ikerketarako «Francisco Javier Gómez Elosegui» saria arautzen duen dekretu-proiektua egin du, eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera izapidetu behar da.

Lege horren xedapenak betetz, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuak Agindua eman zuen 2026ko urtarrilaren 22an, aipatutako dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko.

Aipatutako 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak beti egin behar dira herritarren eskubide eta interes legitimoei zuzenean eragiten bazaie eta artikulua honetan aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada.

Horretarako, espetxe-arloko lan eta ikerketarako «Francisco Javier Gómez Elosegui» saria arautzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzen da, 20 egun baliodunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Azaldutako guztiagatik, eta bat etorri aipatutako dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen dion Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2026ko urtarrilaren 22ko Aginduan xedatutakoarekin, Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuaren 15.g) artikuluari dagokionez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Espetxe-arloko lan eta ikerketarako «Francisco Javier Gómez Elosegui» saria arautzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzea, hogeit (20) egun baliodunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, dekretu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Hirugarrena.– Alegazioak elektronikoki aurkeztu daitezke, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 3a.

Justiziako zuzendaria,
JOSÉ MARÍA BASTOS MARZAL.